# BERRIGARA

5. zenbakia JARDUN Elkartea, Bergara 1996, azaroak 15




## Bergarako eremu megalitiarra garbitzen

# Inguru megalitiarra


OPEL

TALLERES OLA

Olabarren auzoa z/g.
Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46
BERGARA (Gipuzkoa)
Zerbitzu ofiziala ARRASATEn:
TAKOLO AUTOAK
Araba Etorbidea, 3 (Eskatu edifizioa)

OPEL KONTZESIONARI OFIZIALAK, HOBEAK.


VENTANAS SAN MIGUEL
Ventanas San Miguelekin... denean irabaziko duzu.
Erosotasunean irabaziko duzu.
Aurrezpenean eta energian irabaziko duzu.
Isolamenduan irabaziko duzu.
Konfortean irabaziko duzu.
Ibargarai, 5 BERGARA ☎ 76 12 21
Etorri gurera!
Denean irabaziko duzu.


ALZAS ELEKTRAGINTZA
Korronte alterno eta zuzeneko makina elektrikoen eta abiada haundiko induzituen konponketa eta bobinaketa
Antigua auzoa, 3
Telefonoa: (943) 76 64 14 • Faxa: (943) 76 62 99
ANTZUOLA

BERRIGARA

RROTALDE JAUREGIA
0570 Bergara
76 03 97 • Faxa: 76 08 19

rgitaratzailea:
ARDUN Elkartea.
uzendaria:
neko Azkarate
rredakzioa:
duardo Mendibil
Mikel Elkoroberezibar
one Larrañaga
itziber Azkondo
Maketazioa:
neko Azkarate
Publizitatea:
lex Azkarate
Harpidetzak:
Gorka Elortza
Testuen zuzenketak:
stepan Plazaola
Maripi Laskurain
lex Labaien
rredakzio kontseilua:
Gorka Elortza
Miguel Angel Elkoroberezibar
lex Labaien
Komikiak:
Bittor Rodriguez
Gorka Ortega & Jon Alvarez
lex Ugalde
Unai Azkarate
Banaketa:
xantxangorri taldea
Tirada:
.200 ale.
nprimategia:
Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)
Copyright:
BERRIGARA
Lege gordailua:
S 50/91
SSN:
130-6599

BERRIGARAk ez du bere gain
artzen aldizkarian adierazitako
esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek Bergarako
Udalaren laguntza jaso du

Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du

Aldizkari honek Eusko
Jaurlaritzaren Kultura
sailaren laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?

# IÑAKI MADINABEITIA

## *Mendia Bizirik-ekoa*



**- San Martzialen artea landatzeko asmoa omen daukazue.**

- Horrela da, bai. Udalak eskatuta, oso espezie zaila den artea berreskuratzeko asmoa daukagu. Artea erregresioan dago, Bergaran ez dago artadirik gaur egun eta duela ehundaka urte San Martzial ingurua oso aberatsa zen alde horretatik. Dena den, artea berreskuratzea ez da batere erreza eta 10 m2 inguruko mintegi bat jarriko dugu San Martzialen. Hortik aterako da landarea, eta landaketa Askatsu eta San Martzial bitartean egingo da. Proiektu honekin berehala hasiko gara.

**- Baduzue beste proiekturik eskuartean?**

- Bai. Eskolekin zerbait egiteko asmoa dugu eta horrez aparte herriko zuhaitzen inbentarioa ere egin nahi dugu. Balio haundiko herriko zuhaitz askok ez daukate inolako babesik ezta inolako aipamenik ere eta zenbait zuhaitz *relikia* batzuk dira. Udalak bere adostasuna azaldu du eta datorren urtean proiektua adjudikatu eta lanean hasiko gara. Lan hau hiru fasetan burutuko da.

***"San Martzial inguruan artea landatzen hasiko gara berehala"***

I T U R R I O N E T I K

## Gaisoak jasotzeko eguneko zentroa otsail alderako prest izango da

Euren familiarren beharra duten gaisoak atenditzeko Jubilatuetan martxan jarriko den eguneko zentroa ez da otsail aldera arte zabalduko. Udala eta Diputazioaren arteko jestioak nahi baino polikiago doaz eta Udaleko Ongizate Batzordea Diputazioarengandik proiektua jasotzeko zai dago. Jubilatuetako beheko solairuan egin beharreko erreforma lanek 4 milioi pezeta inguruko aurrekontua izango dute eta horrez gain gela ekipatzeko beste diru partida bat bideratu beharko da. Lanak otsail edo martxorako amaituko dira. Antzuola, Elgeta eta Bergarako gaisoak jasoko dira eguneko zentroan.

E S A N D U T E

"'Ura, lurra eta azpiegitura egokirik gabe, gosea dugu nagusi. Zergatik agintzen dute multinazionalek dena txikitzeko, basoak agortuz, gu goseak hiltzera kondenatuz?' dio Zimbaweko Theresak, karga gainean hartuta, kilometrotan oinez ibiltzearen nekea agerian gorputzean. Mundu aberatsa, eta arazoa denean berdina: eskubide eta ondasunen banaketarik eza. Baina ahots hauek ez dira entzungo Munduko agintariek Erroman "gosearen aurka" egingo duten antzerkian. Noizko benetako demokrazia jateko, bizitzeko?"

**MAITE ARISTEGI**
Baserritarra
EGIN

●

["Ubu babel"i buruz] "Paradoja, estrategia eta egoera absurdo ugariz beteta dagoen obra hau dela eta, Taun-Tauneko aktoreak Jarryrekin liluratuta geratu dira, lanaren gaurkotasunagatik eta bere aberastasunagatik"

**KAROLINA ALMAGIA**
Kazetaria
EGIN

●



**REACCION EN CADENA**
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30 (Ikuslearen eguna).



**MI COLEGA DUNSTON**
Domeka: 11:30 (Matinala).



**BAJO LA PIEL**
Eguena: 20:00 (Zine-kluba).

## Zinea

▼▼ **Keanu Reeves** (*Speed*) eta **Morgan Freeman** (*Seven*) aktoreek protagonizatutako tentsiozko filmea. Laborategi batean zientifiko talde batek energia sortzeko formula sekretu bat asmatuko dute. Baina zenbait erakundek ez dute begi onez ikusten asmakizun hori eta *Kasalivich* (**Reeves**) eta *Sinclair* (**Rachel Weisz**) laborategiko langileak arriskuan egongo dira...

▼▼ *Robert Grant* (**Jason Alexander**) Majestic Hoteleko zuzendaria egoera larrienetan ere primeran konpontzen da. Dena kontrolpean izatea lortzen du... *Dunston* tximinuak hoteleko gela bat alokatzen duen arte. *Dunston*ek *Lord Rutledge* izeneko lapur batentzat lan egin beharrean aurkitzen da baina ihes egin eta hoteleko neska-mutilek Dunston babestuko dute, egoera barregarriak suertatuz.

▼▼ **Francisco J. Lombardi** zuzendari peruarrak (*La boca del lobo, Caidos del cielo*) Donostiako Zinemaldian aurkeztutako filmea. Peruko iparraldean kokatuta, **Lombardi**k *Percy Corso* (**Jose Luis Ruiz Barahona**) polizia pazifista eta inseguro bat eta *Marina* (**Ana Risueño**) patologa espainol baten arteko amodiozko istorioa aurkezten digu.

## Deiak

▼ **1951n** jaiotako bergararren afaria Antxonin azaroaren 30ean. Izen-ematea Antxonin bertan.

▼ **1944an** jaiotako bergararren anaiarteko eguna azaroaren 30ean. 7etan meza Santa Marinan eta 9etan afaria Azpeitxi jatetxean. Izen-ematea 76 28 33 (Elisa Ugarte) edo 76 23 70 (Sanchez) telefonoetan.

▼ **1945eko** bergararren afaria Antxonin hilaren 30ean. Izen-ematea (2.000) bertan hilaren 23rako.

▼ **1957an** jaiotako bergararren afaria Zumelagan hilaren 30ean. Izen-ematea (1.000 pta.) Intxortan.

▼ **1970ean** jaio eta Aranzadi Ikastolan elkarrekin ibilitakoen bazkaria azaroaren 30ean. Izen-ematea Kortazarren (2.000 pta.).

## Ogia

▼ **Domeka 17:** Mizpildi.

## FARMAZIAK

▼ **Eguakitza 15:** Guallar.
▼ **Zapatua 16:** Estella/Corcuera.
▼ **Domeka 17:** Estella/Irizar.
▼ **Astelehena 18:** Mozos/Amezua.
▼ **Martitzena 19:** Camacho/Ruiz.
▼ **Eguaztena 20:** Puy/Morales.
▼ **Eguena 21:** Guallar/Azkoaga.

Pepelu
Ilepaindegia
Zurradero, 2 ☎ 76 43 07
BERGARA

ARTISAUTZAKO IZOZKIA
GOXO-TOKI
D. Irala, 3 - Tlf. 761235
Matxiategi, 34 - Tlf. 762337
BERGARA

ONENA
TINTATEGIA
Barrenkale, 29 BERGARA

# Kamara musika

## Mondragon Brass eta Roberto Bonetto organujolearen kontzertuak



Mondragon Brass taldeak kontzertua emango du gaur 22:30etan Novedadesen.

**Udazken** Kulturalaren programazioaren barruan, Mondragon Brass taldeak kamara musika kontzertua eskeiniko du gaur gaueko 10:30etan Novedades aretoan. Mondragon Brass taldeak euskal metale-musikariei aukera ematen die eta profesional ospetsuen esperientziak jaso ondoren (tartean Euskadiko eta Bilboko orkestena eta lagundu dien hainbat euskal zuzendarirena), lan egiten duen ia talde profesionala dugu.

Mondragon Brassek Euskal Telebistako zenbait programatan hartu du parte eta esan behar da taldeak errepertorio zabala eskeintzen duela, Berpizkunde garaiko musikatik gaur egungo musikara alegia.

Taldea 12 lagunez osatuta dago (Angel Agiriano, Xabier Arrondo, Asier Elorza eta Joxe Migel Etxeberria bergararrak tartean) eta gaurko emanaldian, Alberto Urretxoren zuzendaritzapean, Tylman Susato, Henry Purcell, Johannes Brahms, Rossini, R.D. Miller, Iveson, Manan eta Hazellen lanak joko dituzte. Sarrerak 500 eta 300 pezetan (Gazte Txartela edo langabetu txartelarekin) jarriko dira salgai Novedadesen.

### Organoa eta seiluak

Bihar, zapatua, berriz, Roberto Bonetto organujole italiarraren txanda izango da, arratsaldeko 8etatik aurrera San Pedro parrokian. Veronan jaioa, Bonettok organu eta organu konposaketako ikasketak egin ditu, bietan kalifikazio onenekin diplomatu delarik. Nazioarteko hainbat kurtsotan hartu du parte eta horrez gain kontzertuak eskeini ditu Alemania, Frantzia, Suiza edo Suedian. Gaur egun organu eta kantu gregorianoko irakaslea da Bonetto Adriako Estatu Kontserbatorioan. Biharko emanaldian, besteak beste, Häbdel, Brahms, Mendelssohn, Dubois, Guilmant edo Duprèren lanak eskeiniko ditu. Sarrera debaldekoa izango da.

Eta bihar ere Bergarako Seilu eta Bildumazaleen Elkartearen XXV. erakusketa zabalduko da eguerdian Kultur Etxean. Azaroaren 24ra arte ikusgai izango den erakusketan Justo Garateri omenaldia eskeiniko zaio. Astegunetan 6etatik 9etara eta astebukaeretan 12etatik ordubietara eta 6etatik 8etara izango da zabalik.

**Seilu eta Bildumazaleen elkarteak Justo Garateren omenezko erakusketa iragarri du**


Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULO ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...
Irizar pasealekua, 2 behea
☎ 76 59 54 BERGARA

KONDE
PANADEROKUA



Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

ARRANO
Taberna
Kruz Gallastegi BERGARA

## Intsumisioak aurrera

Lehenengo intsumisoak agertu zirenean, gizarteak ez zuen uste horrenbesteko erantzun soziala jasoko zutenik. Hala ere intsumisioak aurrera jarraitu du eta jadanik ia "normala" ikusten dugu gure gazteek derrigorrezko soldaduzkari uko egitea intsumisioaren bidea gauzatuz. Baina, ez al duzue uste intsumiso mugimendua geldialdi baten dagoela? Nire ustez ohitu egin gara. Intsumisioa, gure gizarteko beste edozein mugimendu bezala, "normala" ikusten dugu; eta nahiz eta honek intsumisoak onartzen ditugula adierazi, mugimendua bera indarrik gabe uztea ere suposatzen du. Honen aurrean, berriz ere kalera atera behar gara. Eskubide bat dena aldarrikatu beharrean gaude; zeren nahiz eta gobernuak derrigorrezko zerbitzu militarra "profesionalizatu" nahi duela esan, horrekin ez dugu ejerzitoen suntsipena lortzen.

Instumisioa, gizarte desmilitarizatu bat lortzeko bide bat da. Bai, intsumisioak lortu dituen erantzunak ez ditu beste mugimendu batek lortu; hori dela eta, beste pauso bat emateko ordua dugu: Gizarte desmilitarizatu baten alde, intsumisioa.

Aste honetan "sorteoak" izan dira berriz ere. Militarrek gobernuaren laguntzaz, aurten hamazortzi urte bete dituzten gazteak sorteatu dituzte. Beraien bizitzako urte oso bat planifikatuko dute. Gainera, aste honetan bertan NATOri buruz aritu dira espainiar parlamentuan. Behin ezetz esan genien eta berriz ere ezetz esango diegu: Ez dugu militarrik nahi, ez espainiarrak ez eta nazioartekoak ere. Antimilitaristak gara. Eta jarrera honekin jarraitzeko hil honen hamaseian, Arrasaten ikusiko dugu elkar, bertan egingo dugun manifestazioan: "Hoy mas que ayer..., militarismoari intsumisioa!!!".

Marijo Deogracias

## Gaztetxea, alkatea eta epailea

Azaroaren 20an, asteazkena, goizeko bederatziak eta laurdenetan egingo da Bergarako bi gazteren aurkako epaiketa.

Dakizuenez, duela hiru urte itxi ziguten Gaztetxea; desalojoaren amorruz Udaletxera (herriaren etxera) zuzendu ginen eta bertatik poliziak bortizki atera gintuen.

Herrian zehar manifa egin zen, ondoren berriz ere Udaletxera joanez. Oraingo honetan, alkatearen bulegora zuzendu ginen eta bertan, ahoz-aho entzun behar izan zituen gure jaun agurgarriak herriko gazteen kezka eta beharrak. Tira-bira haren ondorioa dugu epaiketa hau, "Desacato a la autoridad" akusaziopean urtebeteko kartzela zigorra eta 100.000 pezetako isuna eskatzen du fiskalak.

Tontorik, ordea, ez dugu alkatetzat, zeren denuntzia ezeztatu egin omen zuen gure alkate "txit" gorenak. Noski!, jakinean egon ondoren epe luzea pasa zela eta fiskalak aurrera eramango zuela kasua.

Azaroaren 20an denok Donostiara! Epaiketarik ez! Gaztetxea bai!

N. M. (NAN: 15.392.835)

## Zuzenketa

Joan zen astean Berrigaran, "kulturrizketa" izeneko sailean egin zidaten elkarrizketako azken galderan nik adierazi nahi nuena ondo isladatu ez zela uste dut. Horregatik, eta gaizki ulertuak izan ez daitezen, zuzenketa bat egin nahi nuke. Aipatutako galderan, Old Boys Quintet taldeari buruz ari nintzenean, Donostiako Altxerri tabernan joteko izan zuten aukera bezalakoei uko egin izan ez baliete, gehiago irtengo liratekeela esan nahi nuen. Bestalde, Altxerrin joteari uko egin zioten, bertan joteko nahikoa "nibel" ez zutela esanez.

Aitzol Mujika

## Tiiira biraka

GORKA ORTEGA & JON ALVAREZ



## Gestoren zozketa

Gestorek antolatutako zozketan, 187.906 zenbakiaren jabea Opel-Frontera kotxe batekin saritua izan da. Saritutako boletoa agertuko ez balitz, 8.789a ordezko zenbakia izango litzateke.

## Odol ateraldia eguastenean

Bergarako Odol Emaleen Elkarteak dei egiten die herriko odol emaleei eguastenean 18:30etan Seminarioko lokalean egingo den odol ateraldian parte hartzeko.

## Jubilatuak

Bergarako Jubilatuek Irun, Errenteri eta Legazpiko jubilatuekin batera mendi irteera egingo dute Irunera azaroaren 21ean. Bestalde, abenduaren 1erako Lizarrara irteera iragarri da. Argibideak 76 21 40 telefonoan.

### HILDAKOAK

**Maria Luisa Irazabalbeitia Arriola**
Azaroak 8, 68 urte.
**Jose Maria Gallastegi Zubiaurre**
Azaroak 8, 89 urte.

### JAIOTAKOAK

**Ander Fuentes Horrillo**
Azaroak 6.
**Gorka Larrañaga Aguila**
Azaroak 7.
**Marina Azkarate-Askasua Borobia**
Azaroak 8.



Langabetuen eta enpresen arteko zubi izateko sortu du Jaurlaritzak Langai zerbitzua. ARTXIBOA

# Langai zerbitzuko zentro laguntzailea izateko eskaera

Bergarako Udalak Langai zerbitzuko zentro laguntzailea izateko eskaera luzatu du. Eusko Jaurlaritzak bultzatutako Langai enplegu zerbitzuak 160 zentro baino gehiago izango ditu Euskal Autonomi Elkartean eta horietako zentro bat izateko eskakizuna egin du Udalak, Ongizate Batzordearen proposamenari jarraituz.

Langaik lan mundurako zubi berri bat eraiki zuenetik, INEMek lan bitartekaritzan orain arte izan duen monopolioa galdu du. Marije Unamuno Udaleko enplegu teknikariaren hitzetan, *"Kataluinan eskeintzen den zerbitzua kopiatu da Euskal Herrian eta esan behar da han arrakasta haundia izan duela. Zerbitzu honen bitartez doaneko lan poltsa bat sortuko da eta hori izango da Langairen zeregina: lan eskaintzak eta lan eskaerak jaso eta ahal den guztietan lana eta langabetua lotzea"*.

Azkenaldian zerbitzu bera eskeini dute aldibaterako lana topatzen duten hainbat enpresak baina Unamunoren esanetan bada aldea azken hauen eta Langairen artean: *"batetik Langaik komunitate osorako zerbitzua eskeiniko du, ez da pribatua, doanekoa da eta formazio okupazionala eta profesionalarekin egiten du lan"*. Hainbat unibertsitate eta ikastetxek ere Langairekin kolaboratuko dute.

Udala Jaurlaritzaren zain dago oraindik baina aukera haundiak daude Langai zerbitzua Bergaran eskeintzeko. Horrela izango balitz, aipatutako zerbitzua astelehen, asteazken eta ostiraletan eskeiniko litzateke eta Udalak hainbat espezialitate kalifikatuko lituzke, tartean nekazaritza, eraikuntza, artisautza edo ehungintzako ofizioak.

Zure konfidantzako denda

LASAGABASTER

Tfnoak: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE

## Aranzabal Lagunartearen bilera zapatuan

Aranzabal Lagunarteak dei egiten die bere bazkideei zapatuan, 12:30etan, Zabalotegiko aretoan egingo den bileran parte hartzeko. Aztertuko diren puntuen garrantzia kontutan izanik, behar beharrezkotzat jotzen da partaide guztien asistentzia.

## Ski denboraldia Pol-Polarekin

Pol-Pol Mendizale Taldeak 96-97 ski denboraldiko prezioen berri eman nahi die interesatuei. Astun-Candanchuko ski alpinoko denboraldirako bonoak 49.000 (nagusiak) eta 41.500 pezetan (14 urtera artekoak) jarriko dira salgai. Prezioa hauek 1.500 pezetan garestituko dira bonoak azaroaren 21etik aurrera tramitatuz gero. Bestalde, Candanchu-Le Somport ipar skiko zirkuituaren denboraldiko bonoak 7.000 eta 2.300 pezetan (infantilak) salduko dira. Bi bono mota hauek atera ahal izateko beharrezkoak dira Pol-Pol Mendizale taldeko bazkide izatea, N.A.N.aren fotokopia eta bi argazki. Bestalde, eguneko bonoen prezioak hauek dira: 2.800 eta 2.300 ski alpinoaren kasuan eta 750 eta 375 pezeta ipar skiari dagokionez. Argibide gehiago Pol-Polen, 76 48 51 telefonoan.

## Hitzaldia

Komite Internazionalistek antolatuta, martitzenean, hilak 19, Yamileth Molinak Nikaraguaren gaur egungo egoerari buruzko hitzaldia emango du 19:30etan Kultur Etxean. Yamileth Molina emakumeei zuzendutako heziketa herrikoia bultzatzen duen "Venancia" taldekoa kidea da.



Gartzela Zaharrean gazteentzako txoko bat sortu eta euskal giroa piztea da helburua.

# 12 urtetik gorakoei zabalduko die Gartzela Zaharra Jardunek

### *Txapelketak, tailerrak, ikastaroak... antolatuko dira bertan*

Astebukaera honetatik aurrera Jardunek Gartzela Zaharra zabalduko du 12 urtetik gorako neska-mutilentzat. Herriko gaztetxoek hainbat jarduera egiteko aukera izango dute bertan: txapelketak, irteerak, tailerrak... Zapatuetan arratsaldeko 5etatik 8etara izango da zabalik eta domeketan, berriz, 12etatik ordubietara eta, arratsaldez, 4retatik 8etara.

Azaroan sarrera doanekoa izango bada ere, abendutik aurrera gaztetxoek karneta atera beharko dute Gartzelako ekitaldietan parte hartu ahal izateko. Karneta ateratzeko 2 argazki eta 3.000 pezeta eskatuko dira. Karneta kurtsoaren amaierara arte, uztailera arte, baliagarria izango da. Jardunen helburua Gartzela Zaharrean gazteentzako txoko bat sortu eta euskal giroa piztea da. Gazteekin batera Edu Orgaz arduraduna eta Nuria Barrero, Miren Ostolaza eta Nerea Gallastegi begiraleak arituko dira.

Zapatu honetan, hilak 16, futbolin eta ping-pong txapelketak jokatuko dira 5etatik aurrera eta 7etan, berriz, karaokea izango da. Domekan, eguerdiko 12etan sorpresa bat izango da eta arratsaldeko 6etan, Gaztainerre jaia. Programatutako ekitaldiez aparte gaztetxoek jokuekin, musikarekin eta abarrekin primeran pasatzeko aukera izango dute.

Beraz, bihartik aurrera, Jardunek herriko gaztetxoak Gartzelara hurbiltzeko gonbidatu nahi ditu.








TOKI-ONA
Bodegoia-taberna
*Eguneroko janariak / Txitxizotzak*
*Kazolatxoak / Txabierroak*
Matxiategi, 1 Tfnoak: 76 39 53

## Kruz Gallastegi itxita

Irala zine aretoa botatzeko lanak direla eta, Kruz Gallastegi kalea itxita egon da astelehen eta martitzenean. Orain dela bi aste hasi ziren Irala botatzen eta datorren astean lanekin jarraituko dute. Inguruan dauden etxeak direla eta, ez da egun batean egiteko lana. Irizar 2ko ganbaratik ateratako argazkian ikus daitekeenez, 70ko hamarkadan inguruko zine aretorik ederrenetakoa izan zena erabat itxuraldatuta dago. Lanak amaitu ostean, lursail horietan eraikiko den edifizioaren proiektua aurkeztu beharko dute Udalean Iralako jabeek.



## Xabier Arzalluz Bergaran





Xabier Arzalluz, Eusko Alderdi Jeltzaleko EBBko presidentea, gaur egungo egoera politikoari buruz mintzatu zen joan zen ostiralean Batzokian Bergarako alderdikideen aurrean. Hitzaldia EAJko afiliatuentzat izan zen bakarrik eta prentsak ezin izan zuen han esandakoa jaso. Hitzaldia hasi aurretik, ordea, argazkia atera ahal izan zuen BERRIGARAK. Bestalde, Batzoki kanpoaldean, presoen egoerari buruz protestatzeko 50 bat lagun bildu ziren, Gestoren eta Senideen deiari erantzunez.

## 1955an jaiotakoen afaria

Datorren zapatuan, hilak 23, 1955ean jaiotakoek euren anaiarteko eguna ospatuko dute. 7etarako meza iragarri da Santa Marina elizan eta jarraian afaria Pertxa elkartean. Interesatuek 76 35 17 (Mari Karmen Leturia) edo 76 15 36 (Mari Asun Gardoki) eman dezakete izena.

## Hika ikastaroa

Jardunek Hika ikastaroa antolatu du Garaion (Araba) datorren astebukaeran, hilak 23 eta 24. Bazkideek 3.000 pezeta eta gainontzekoek 3.500 ordaindu beharko dituzte. Izen-ematea azaroaren 20a baino lehen Jardunen, 76 08 19 eta 76 36 61 telefono zenbakietan.

## Kontzertuak Jam aretoan

Astebukaera honetan bi kontzertu izango dira Jam aretoan. Gaur Ian Ashburyren Holy Barbarians taldeak emanaldia eskeiniko du gonbidatutako beste talde batekin gaueko 10etatik aurrea. Bihar zapatua, berriz, Norackins, The Pleasure Fuckers eta Ass-Dragers taldeak egongo dira.

## Bi gazteren epaiketa

Herriko bi gazte epaituko dituzte eguastenean Donostian, duela hiru urte Gaztetxearen desalojoaren ondoren Udaletxean gertatutako istilu batzurengatik. Gazteei "desacato a la autoridad" delitua leporatzen diete.

## Herriko ikasleen protesta

Herriko ikastetxe ertainetako ikasleek protestaldiak burutu zituzten eguastenean soldaduzkaren zozketengatik.

LAZKANO
Oinetakoak
Barrenkale, 15
☎ 76 25 03

Masterreka 24
Nepal, India eta Hego Amerikako jantziak
Masterreka, 24 BERGARA

BEREZITASUNAK:
BIZKOTXOAK
ERRELLENOAK
TOSTOIAK
MUJIKA GOZOTEGIA
Artekale, 3 BERGARA
☎ 76 10 34

# Goiko Estazioko etxea hurrengo asteetan botako da seguruen

**Azkenaldian** zeresan ugari ematen ari den Goiko Estazioko edifizioa botatzeko erabakia hartu zen joan zen asteko Plenoan. Oraindik ez da fetxarik jarri edifizioa bertan behera botatzeko baina udal iturrien arabera datozen asteetan botako da ziurrenik. Bien bitartean, herriko gazte talde batek edifizioa berritzeko lanetan darrai.

Aipatutako gazteek abuztuan okupatu zuten Goiko Estazioko edifizioa. Ordutik hainbat konponketa lan burutu dituzte bertan. Gazteen ordezkari baten hitzetan, *"hasieran gutxiago baginen ere, orain 50 bat lagun ari gara bertan lanean eta abuztutik hona zapaia konpondu, 2. solairuko zati bat berriztu, eskilara jarri eta behean lurra bota dugu"*. Gazteek ez dute edifizioa uzteko asmorik, *"Gaztetxea itxi zenetik denbora asko pasatu da eta Udalaren partetik inolako erantzunik jaso ez dugunez, lehendabiziko pausua geuk ematea erabaki dugu. Alkatearekin egon gara, eta berrizte lanen proiektua eta gure asmoen berri eman diogu"*.

Gazteek Udal Gobernu Batzordeari Plenoan hartutako erabakia aldatzeko eskatzen diote; *"etxearekin gelditzeko ahaleginak egingo ditugu eta etorkizunean tailerrak eta ikastaroak bertan antolatzeko asmoa daukagu. Gezurra dirudi gazteen aldetik mugimendu pixka bat dagoen bakoitzean Udalak jarrera hori azaltzea"*.



Goiko Estazioko etxea abuztuan okupatu zuten gazte batzuek. Harrezkero hainbat konponketa egin dituzte.

### Arau Subsidiarioetako irizpideak

Plenoan, tripartitoak edifizioa botatzearen aldeko botoa eman zuen, Arau Subsidiariotena jasotzen diren irizpideei jarraituz. HB kontra azaldu zen. HB ere hasiera batean etxea botatzearen aldekoa zen, baina gazteek edifizioa okupatu zutenean HBk bere hasierako jarrera aldatu egin zuen eta Udal Gobernuak edifizioa botatzeko prozesua azkartzea kritikatu zuen Plenoan. Tripartitoak, ostera, edifizioa botatzeko aurrekontua okupazioaren aurretik eskatuta zegoela eta aurretik, Hirigintza Batzordean, alderdi guztiak (HB barne) horren alde azaldu zirela erantzun zion HBri. Hasiera bateko akordio hura edifizioa oso egoera txarrean zegoelako hartu zela eta gazteek egindako hobekuntzen ondorioz bota beharrik ez dagoela erantzun zuen HBk, botatzekotan aurrikusitako bide gorria egin eta trenbide osorako aktuazio urbanistiko bat lantzen denean botatzea proposatuz.



### Trena azken aldiz 1971n

FEVE (Ferrocarriles Españoles de Via Estrecha) konpainiak 1884 urte inguruan ekin zien Zumarraga eta Bergara arteko trenbidea eraikitzeko lanei eta trenbidea mende hasieratik 1971ko otsailaren 28ra arte izan zen martxan. Ordutik abandonatuta egon da eta Udalak 1991n Goiko Estazioko lursailak berreskuratu zituen, lursailen jabeekin eta FEVErekin negoziatu ondoren.

Lursailen jabeek, trenbidea eta Goiko Estazioa egin zirenean espropiatutako lursailak berreskuratzeko aukera zeukaten "derecho de reversion" delakoari esker, baina Udalak, partikularrekin banan-banan negoziatu zuen eskubide horri uko egin ziezaioten.

*Legedia*

# Kode penal berria



SABIN ZABALETA
*(Abokatua)*

**- Noiztik dago indarrean kode penal berria?**

- Joan zen mendeko kode penala izan dugu orain arte eta udaberritik kode penal berria indarrean dago. Horren aurretik, ez dugu ahaztu behar aldaketa partzialak gorpuzten joan direla eta zaharkitua bagenuen ere zenbait atal ez zirela hain zaharrak. Baina Konstituzioaren garaietatik hainbat ahalegin egin dira kode penal berria onartzeko, are eta gehiago hainbat aspektu ez zirela jasotzen (lepo zuriko delituak adibidez, espekulazioz egindakoak) eta beste batzuk berriz guztiz desfasatuta zeudela ikusiz, hutsunea haundia baitzen. Baina ez da pertsona egokirik ezta borondate politikorik ere egon hori aurrera eramateko eta azkenean udaberrian onartu zen. Esan behar da kode penala aldatzea ez dela hain erreza, parlamentua osatzen dutenen gehiengoa behar baita. Aldaketa derrigorrezko arazoa bilakatua zegoen; gaur egungo gizarteari egokitzeko derrigorrezkoa zen kode penal berria osatzea.

**- Kode penal berria gaur egungo gizarteari egokitzea lortu da?**

- Denboraren poderioz jakingo da praktikan egokitze hori ematen den ala ez; baina teorian behintzat esan dezakegu, adibide gisa, gizarte honetan gero eta gehiago ikusten den ekonomi eta merkatal arloko zenbait ustelkeria zigortzen duela; publizidade faltsoa, droga salmentatik eskuraturiko diruaren erabilera, ekolojiarekin zerikusia duten delituak, etabar.

**- Beraz, irudi edo zigor berriak kaleratu dira?**

- Bai, hala da eta aipatutako egokitze horretan, gainera, zigor berriak finkatzeaz gain lehenago ezarritako hainbat zigor ere gogortu egin dira. Horiek lirateke kode penal berriaren alderdi baikorrenak.

**- Zeintzuk dira kode penal berri honen alderdi ilunak edo kaskarrak?**

- Hemen ezagunena soldaduzkari dagokiona dugu; alegia, zigorra pixka bat aldatu arren soldaduzkari uko egitea zigorturik jarraitzen duen arazo bat dugula. Badira beste zenbait alderdi ere (abortoaren 4. supuestoa sartu ala ez esate baterako) baina ez dute adostasun edo oihartzun maila berdina lortu.

**- Beste zerbait azpimarratuko zenuke?**

- Zigor motak ere pixka bat aldatu direla kode penal berriarekin; adibidez isuna lehen automatikoki finkatzen baldin bazen, orain pertsona bakoitzaren egoerari loturik joan behar duen zerbait izango dugu. Hala espero behintzat.

**"Soldaduzkari uko egitea zigortu egiten da kode penal berrian ere, zigorra zertxobait aldatu arren"**



Denborarekin ikusiko da kode penal berria gizartera egokitzen den.

AGOITZ
Tapizdenda
San Lorentzo, 25 BERGARA
Tfnoa: 76 18 23

DENA 100etik
ZURE OPARIENTZAKO
Simon Arrieta, 3

ARREGI
Eraikuntza materialeak
Biltegia Tellerian, Labegaraietan.
Tfnoa: 76 27 93

# Megalitikoa

## Kapirixo elkartea Bergarako dolmenak garbitzen



Eguraldi ona egiten duen igandeetan, Elosu inguruan dauden trikuharriak garbitzeko irteerak antolatzen ditu Kapirixok.

**Kapirixo elkarteak urteak daramatza Deba Garaiko ondare historiko eta kulturala zaintzen eta garbitzen. Une honetan, Bergarako eremu megalitiarrak garbitzen ari dira eta Gabonetan trikuharrien seinalizazioa egingo dute. Urtebeteko lana, Gobonetan amaitzea espero dute.**

Xabier Larrañaga Ipintza institutoko irakaslea eta Kapirixo elkarteko kidea da. Inguru honetako eremu megalitiarrean Kapirixo egiten ari den lanaren arduraduna da. *"Lehendabiziko lana trikuharria aurkitzea da eta ondoren garbiketa prozesua hasten da. Trikuharriak aspaldidanik koordenada geografikoen bidez seinaleztatuta egon dira baina aurkitzerako orduan, oraindik ere zailtasunak izaten ditugu. Trikuharriak topatzea lan erreza da, gogorrena garbiketa prozesua da".*

Trikuharri eta tumuluak nahiko zikin egoten dira, jendeak eta naturak berak ere, landarez estali eta zikindu egiten ditu. *"Garbiketa prozesua, alde batetik, landaretza desagertzean eta, bestetik, bertan pilatutako zaborra kentzean datza. Askotan, hainbat trikuharri zabortegi gisa erabili izan dira. Gure ardura horrelakoak ekiditzea da".*

Orain dela urtebete hasi zen Kapirixo trikuharriak garbitzen. Hasierako deialdiek arrakasta izan

**"Askotan, hainbat trikuharri zabortegi gisa erabili izan dira. Gure ardura hori ebitatzea da"**

zuten baina denboraren poderioz taldea murrizten joan da. *"Igandero goizeko zortzi t'erdietan, eguraldiak laguntzen duenean, Beheko estazioan elkartzen gara. Honek sakrifizioa eskatzen du eta jendea ez da beti animatzen. Joan zen domekan egin genuen irteeran, esate baterako, 8 bat lagun izan ginen. Trikuharri batzuk hamabi egunetako lana izan dute eta neketsua izan da. Lana amaitzen ari gara eta Gabonetan seinalizazioa egingo dugu. Hamalau trikuharri garbitu ditugu dagoeneko eta hiru trikuharri geratzen zaizkigu, ea Gabonetan jendea animatzen den, eskertuko genuke".*

Kapirixoren lana ez da mihaketa egitea garbiketa eta seinalizaioa baizik. Mihaketa prozesua egiteko pertsonal berezitua behar da eta baimen bereziak behar dira, lan horietan Aranzadi Zientzia Elkartekoak eta aritzen dira.

## Seinalizazioaren bidez ibilaldiak osatu

Trikuharri guztiak garbitu eta ingurua txukuntzen denean, ibilaldi bat osatuko da. Trekutzen, Santutxun eta Karakaten emango zaio hasiera ibilaldiari eta seinalizaioen bidez, jendeak trikuharrien berri izango du. *"Ibilaldi hasieran ipiniko diren panel didaktikoek, trikuharriak zer diren, non dauden, noizkoak diren, nolakoak diren eta zertarako balio duten azalduko dute. Jendeak ez du ingurune hauen berri eta ondorioz ez ditu errespetatzen. Aberastasun handia dago ingurune horietan eta gure eginkizuna jendea informatzea izango da".*

**"Trikuharriak koordenada geografikoen bidez seinalizatuta daude, baina aurkitzerako orduan, oraindik zailtasunak izaten ditugu"**

Kapirixok, lana amaitzean, Aranzadi Zientzia Elkarteari, egindakoaren berri emango dio.

## Euskal Herrian bakarra

Azken urteetan Kapirixo elkartea izan da trikuharriak garbitzen eta seinalizazio didaktikoaz arduratu den Euskal Herriko elkarte bakarra. *"Lehendabiziko seinalizazioa orain dela urte asko Aranzadi Zientzia Ekarteak egin zuen. Trikuharriak ahalik eta egoera eraberrituenean utzi nahi izan zuten, baina nik dakidanez proiektuak porrot egin zuen".*

## Egoera txarrean

Trikuharriak oso egoera kaskarrean topatu dituzte. *"Batzuk lursail partikularretan daude eta baserritarrek pinudiak landatzen dituzte bertan. Inoiz arazoak izan dira baserritarrekin eta beste batzuetan zaindu-ko dituztela esan digute,*



Kapirixo orain dela urtebete hasi zen eremu megalitiarra garbitzen; aurtengo Gabonetan amaituko du lana.

*denetik dago. Bideak ere egin dira trikuharrien gainean eta naturak ere zikindu ditu".*

**Garrantzitsuena Elosu aldean**

Trekutzetik Karakatera eta Elgetatik Kanpazarrera bitartean aurki ditzakegu inguruko trikuharri eta tumuloak. *"Garrantzitsuenetarikoa Elosu aldean dago. Trekutzen ere beste bat dago baina elkarte bat egin zuten inguruan eta tumulo zati bat galdu egin zen. Hankasartze handia izan zen. Horregatik seinalizatzea komeni da".*



Erreferentziei esker trikuharri guztiak garai berekoak direla badakigu: 4.500-5.000 urte inguru dituzte.

**4.500-5.000 urte**

Erreferentziei esker trikuharri guztiak garai berdinekoak direla dakigu. 4.500-5.000 urte inguru dituzte. Euskal Herrian ezezik, Europar Mendebaldean ere asko aurkitzen dira. Hilobi kolektiboak dira. *"Trikuharrien inguruan bizi zen jendea artzaina zen. Nekazaritza eta abeltzantza asmatuta zeuden jada eta eremu menditsuetan, jarduera ekonomiko garrantzitsuena abeltzantza zen. Beheko bailadetan, ordea, jende gehiago bizi zen eta nekazaritza zen nagusi".*

**Trikuharriak eta tumuluak**

Trikuharria eta tumulua eraikin ezberdinak dira. *"Benetako trikuharriek, barruan, txabola txiki baten antzekoa den ganbara bat daukate. Bertan hildakoak hilobiratzen zituzten eta ondoren lurrez eta harriz estaltzen zuten, tumuloa gainean ipiniz. Tumuluak, berriz, ez dauka barruko egiturarik. Hilobiratu, gainean harri mordoa ipini eta kitto".*

Trikuharri eta tumuluen neurriak ere ezberdinak dira baina orohar, Euskal Herri mailan, ezberdintasun nagusia, mendietakoak edota haranetakoak izatean datza. *"Mendietakoak txikiago-*


**BERRIGARA aldizkariak ondorengo bi lanpostuak betetzeko langileak behar ditu:**

**MAKETATZAILEA**

- Zer eskatzen da?
  - Erdi mailako ikasketak.
  - Autoedizio programetan esperientzia izatea: Quark X Press, FotoShop, Freehand.
  - Euskaraz, ahoz zein idatziz ondo moldatzea.
- Zer eskaintzen da?
  - Urtebeteko kontratu laborala, lan-jardun osoz, luzatzeko aukerarekin.

**KAZETARIA**

- Zer eskatzen da?
  - Lizentziatu mailako ikasketak.
  - Euskaraz, ahoz zein idatziz ondo moldatzea.
- Zer eskaintzen da?
  - Urtebeteko kontratu laborala, lan-jardun osoz, luzatzeko aukerarekin.

**Informazio gehiago jaso nahi izanez gero, Berrigara aldizkarira (Errotalde Jauregia) jo daiteke edo 76 03 97 telefonora deitu. Curriculum Vitae eta eskabideak aurkezteko helbidea eta epea: Berrigara astekaria (Errotalde Jauregia) 20570 BERGARA, abenduaren 5a baino lehen.**

*ak izaten dira, sotilagoak, eta haranetakoak, berriz, dotoreagoak eta handiagoak".*

Inguruan ditugun eraikinak eroriak eta hondoratuak daude baina zutik dirauten harlauzak ere topa ditzakegu. *"Zutik dauden harlauzak, normalean, prozesu arkeologikoa, ikerketa eta dokumentazioaren ondorio dira. Berez, zutik* aurki *ditzakegunak gutxi daude".*

**Aipagarrienak Irukurutzetakoa eta Keixetakoa**

Eraikin aipagarrienak, Irukurutzeta eta Keixetakoa dira. *"Handienak dira eta ondorioz garrantzitsuenak. Pagobedeinkatua izenez ezagutzen dena ere aipagarria da. Orain dela gutxi arte, bertan, erromeria ospatzeko ohitura zegoen. Jose Migel Barandiaranen interpretazioaren arabera, kristauak ez zirenak bertan hilobiratzen zituzten, inguru paganoa zen. Eremua kristautzeko helburuarekin, erromeriak egiten ziren. Pagobedeinkatua izenak ere, argi uzten digu kristautasunaren eragina".*

Joan zen urtean Kapirixok erromeriaren ohitura berreskuratu zuen. *"Aurten ere egin dugu. Maiatzaren lehendabiziko igandean egin genuen. Pagobedeinkatuara joan ginen eta handik Irukurutzetara. Jende asko gerturatu zen eta oso ondo pasa genuen".*

**Trikuharri izena**

XIX. mendean, nafar batek jasotako izen konposatua da trikuharria. Gaur egun trikuharri izena ezagutzen badugu ere, aspaldian, tregoarri hitza erabiltzen zen. *"Hildakoak hilobiratzea, hildakoari tregua edo pakea ematea da, horregaitik tregoarria. Denborarekin, tregu, triku izenarekin nahastu zen eta gaur egun trikuharria erabiltzen dugu".*

**"Trikuharriak zer diren, non dauden, noizkoak diren, nolakoak diren eta zertarako balio duten azalduko da aurki jarriko diren panelen bidez"**

Trikuharriek, jendea hilobiratuz gain, bazituzten bestelako funtzioak. Garapen kulturala burutzeko tresna ezinhobea bilakatu ziren. *"Komunikatzeko toki apartak bihurtzen dira. Inguruko mendietara abiatzen ziren artzaiak, bailaden bi aldeetatik joaten ziren. Urola aldekoak alde batetik, eta Deba bailadakoak bestetik. Magalean ezagutzen zuten elkar eta ezkontzak, bilerak... antolatzen zituzten. Kultura ezberdinen trukea eta zabalketa suposatuko dute trikuharriek".*



## Ondarea zaintzen

**Bazkideek ipintzen duten kuotetatik eta erakunde ofizialetatik jasotako diru laguntzei esker lan egiten du Kapirixok. Gaur egun, 130 bazkide ditu Deba Garaian eta horietatik 62 bergarararrak dira. Egin behar den lanari buruzko proiektua aurkezten zaio erakunde ofizialari eta onartuz gero, dirulaguntza jasotzen da. Bergarako, Antzuolako eta Soraluzeko udalek, eta Gipuzkoako Diputazioak laguntzak eman dizkiete. Bergarako beste hainbat enpresatatik ere laguntzak jaso izan dituzte: Aceros Bergarak, esate baterako, trikuharriak seinalizatzeko altzairuzko panel berriak egingo dizkie eta Manso Ardoak Pago bedeinkatuko erromeriarako ardoa jarri zuen. Bestalde, Maltzaga-Urbina autobidearen inguruan antolatu ziren Interbentzio Gune Partehartzaileetan ere iritzia eman zuten Kapirixo elkartekoek, autobidea pasatuko den inguruan dagoen ondarearen berri emanez. Toki ezberdinak ezagutzeko txangoak ere antolatu dituzte: Bilbon, hiriguntza prozesua aztertzen izan ziren, Zerainen ere egon dira eta Aiara joateko asmoa dute.**

# Bergaran nahikoa aparkaleku al dago? Aparkatzeko arazorik izaten duzu?



**Nekane Silva**

Ez. Ni San Antonion bizi naiz eta han ez dago arazo haundirik, zapatuetan bakarrik. Baina herri erdian aparkatzea nekeza izaten da, batez ere ostiral eta zapatuetan.



**Bartolome Sanchez**

Erosketak egitera etortzen naizenean oso zaila da aparkalekua topatzea. Ondo egongo litzateke aparkalekuak egitea baina oso zaila ikusten dut.



**Irune Arruti**

Kalera etortzen naizen bakoitzean ezin dut inon aparkatu, nahiz eta kotxea egunero ez erabili. Batzuetan hobe izaten da erosketak oinez egitea.



**Serafin Tena**

Aparkalekuak egon badaude baina batzuk oso egoera txarrean, Seminarioaren ondokoak adibidez. Horiek konpontzea beharrezkoa iruditzen zait.



**Clara Dominguez**

Aparkalekuak badaude baina guztiok nahi dugu zentroan aparkatzea. Arazoak ordu zehatz batzuetan egoten dira. Onena, kotxea gutxiago erabiltzea.



**Domingo Cid**

Zentroan behintzat ez. Askotan Matxiategitik oinez etortzen naiz aparkalekurik ez dagoelako. Lurrazpiko aparkalekuak egitea ondo egongo liztateke.

IZADI PILI GISASOLA
Zurradero, 2 behea.
☎ 76 58 83
Santiveri
Osasun eta Dietetikan espezializatutako zentrua



ETXEBERRIA
ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA
Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

Amillaga (Gasolindegi ondoan). Tfnoa: 76 57 34
ZABALETA
ERROTULOAK
Mota guztietako errotuloak
Fatxadak, eskaparateak...

IRUDI
Erlojudenda
Bitxitegia
Ibargarai, 2
☎ 76 51 65



## Gaudeamus Igitur

"Gaudeamus igitur" unibertsitateko himnoa kantatuz bukatu zuten asteazkenean Biteri Ikastetxe Nagusikoek kurtso hasierako ekintza Arrasaten. Protokoloz beteriko ekitaldia izan zen, detaile guztiak kontutan izandako horietakoa, eta munduko beste hainbat unibertsitatetan ere egiten direnen oso antzerakoa.

Baina zenbait puntutan erreparatu nuen ekintza hau beste "berdin" horietatik berezi egiten zuena: Arrasaten ez dago Unibertsitaterik oraindik, ekintza horren tradizio laburra (hau hirugarren aldia zen); eta azkenik, Bergarako Seminarioak bere garaian representatzen zuenaren erreibindikazioa.

Hiru puntuok aipatuak izan ziren, gainera, modu batera edo bestera: Unibertsitatearena ilusioz beteriko proiektu bezala. Kurtso hasierako ekintzaren tradizio laburra ekintza sortu dutenen kontzientziaren azalpena delako, talde baten gogoen adierazpena: hemen gaude, talde bat gara eta dena lortzeko prest gaude. Eta hirugarrena? Hitzaldi luze baten Bergarako Seminarioaren proiektu ikaragarri hark zer lortu zuen adierazi zitzaigun, orduko pertsonaia eta erakunde haiek gaur egungoekin parekatuz. Juan Jose Elhuyar egungo edozein ikasle litzateke; Antonio Maria de Munibe eta Don Jose Maria Arizmendiarrieta pareko gizonak, herriaren aurrerapen eta ongizateak bultzaturik aritu zirenak; Herriaren Lagunak Elkarteak bete zuen lana Kooperatibismoak egingo luke eta Bergarako Seminarioa Eskola Politeknikoa eta datorren Mondragon Unibertsitatea.

Eta hori guztia kontzientzia osoz esatea gustatu zitzaidan benetan, talde lanean helburu zehatz batzurekin dena lor daitekeela bitartekoak ipintzen baditugu. Baina, etengabe, Bergaran UNED zabaldu zeneko ekintza burura etortzen zitzaidan, han ere Bergarako Seminarioaren oinordetza hartu nahi zen, eta helburu haiek ahazturik ez dakigu non gelditu diren. Arrasaten egosten dagoen lapikoak sukaldari hobeak eduki ditzala.

**Jose Angel MIKEO**



## Behobiatik NATOra

Domekan Bergarako herritar, "tenista" ta "baserritar" batzuk, jende pila batekin batera, aldapan gora ta behera ibili zien Behobiatik Donostiara. Batzuk hobeto, beste batzuk okertxuago, baina ahalegiñak, behintzat, danok.

Aste honetan, berriz, gure "ordezkarixak" ibili die batera ta bestera, botere ekonomiko ta militarren musikaren dantzan, asteko buelta militaristan. Bi mendate nagusi: bata NATOn sartzia (Gaintxurizketa balitz moduan), bestia milaka gazteren bizitza ordenadorien bidez zozketatzia (Mirakruzeko malda labur ta gogorra imitatuz).

Iñork eztotse esan horrek igotzeko, baiña eurak burugogor. Iñork eztotse esan karrera hori antolatzeko. Iñork eztotse esan gure bizitza militarren bidez zaintzeko. Eztotse iñori ezer galdetu nahi, zetako? Lau urtian behin eitten dien hauteskundeetan aukeratzen dittugu ordezkarixak. Hortxe amaitzen die gure eskubidiak, eurei bost aurreko erreferendunian herritarrok azaldutakua, eztou ezer ulertzen ta. Hau ikusitta arazua gaztiena dala diñoenak eztau ezer ikusi nahi. Zeiñi galdetu dotse NATOn sartu nahi doun? Nori Europako proiektu ekonomikuan parte hartu nahi doun? Zetako nahi dittugu ordezkarixak?

Baiña benetako maratoia Zairekua da. Haura bai karreria! Han daren armak eztie irteera emateko txafleruak! Gure laguntza eskatzen dabenian pentsau armak non eitten dittuzten, zein aberasten dan... Ea hurrenguan Euskal Herriko armagintzan konbertsioa eskatzen danian, banaka batzuk elkartu biharrian, Behobiatik Donostiara elkartu zien korrikalari ta ikusle beste biltzen gan! Guk ezpou eitten, jai daukou ta!

**Asis IRIONDO**




KORTA-ZAR
Txokolategia
*Pintxo eta ogibitartekoen espezialitatea*
OSTIRALETAN GOIZEKO 9ETATIK ZABALIK
Barrenkale, 16 ☎ 76 20 62

ITXASMENDI
ERREKADISTA

Barrenkale, 36
BERGARA
☎ 76 50 64 / 76 13 61
EGUNERO DONOSTIA, BERGARA, ARRASATE, ARETXABALETA, ESKORIATZA eta OÑATIRA.

IGARZA
MERZERIA
LENZERIA
Irala, 5 ☎ 76 24 88 BERGARA

AZPEITXI
Aranerreka, 13 behea ☎ 76 55 00
*Jatetxea*

## Ahots berriak



**Bergarako Orfeoia** gizonezkoen ahots faltan omen da eta horretarako abesteko interesa duten guztiei (gizonak bereziki) martitzen eta eguenetan gaueko 9etan Zabalotegin egiten diren entsaiuetara joateko deia zabaldu nahi die. Bien bitartean, Bergarako Orfeoiak bere programazioarekin aurrera egingo du eta Hondarribiko **Eskifaia** abesbatzarekin batera kontzertua eskeiniko du gaur, barikua, arratsaldeko 8etan Donostiako Loiola auzoko elizan.

Bestalde, Tolosako Nazioarteko Abesbatza Lehiaketan irabazle suertatu zen Filipinaseko **Madrigal Singer** abesbatzarekin batera emanaldia eskeini zuen Donibane Lohitzunen joan zen urriaren 31n. Orfeoiak goi mailako konpainia jaso... eta eskeintzen jarraitzen du.



## Gimnasta bikainak

Gipuzkoa eta Euskadiko txapelketak irabazi ondoren, Gimnasia Erritmikako infantil taldeak Espainiako Txapelketan parte hartuko du abenduaren 5etik 8ra bitartean. **Alicia De Cesar** eta **Elena Herreros**ek zuzentzen duten taldeak Gipuzkoa eta Euskadiko txapelketak irabazi berri ditu Zarautzen eta Altzan eta Espainiako txapelketan beste 40 bat talderekin batera izango da lehian. Joan zen denboraldian Espainiako eskolarteko txapelketan bigarren sailkatu ziren bergarararrak eta aurten federatu mailan ari dira parte hartzen. Argazkian, **Jaione Igartua, Alba Maestre, Amaia Torre, Aintzane Narbaez, Ane Miren Fernandez, Elisabet Agirre eta Azahara Gonzalez** taldeko partaideak. Ea Alicantetik, turroiaz gain, beste zerbait ekartzen duten...

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.
Matxiategi ☎ 76 15 09

igor eta Txomin
Pintura orokorrean.
Paper, tela, binilo, kortxozko... estaldurak.
Gotelesa, iztukuak eta bestelako imitazioak.
ANTZUOLA ☎ 76 60 39
BERGARA ☎ 76 19 98

Deco-Textil
ZANGITU
Etxerako lentzeria
Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak
Bisiloak, tapizak, etab.
Herri lagunak 3 eta 5 ☎ 76 08 69

## Diputatua eta pilotua


MIGURA

**Jose Julian Irizar** Azpiegitura diputatuak **Aitor Zabaleta** bergarar kotxe gidariari bisita eskeini zion joan zen barikuan. Zabaletak aurtengo denboraldian Espainiako Mendi Txapelketa irabazteko balio izan dion Lola barketaren inguruko xehetasunak azaldu zizkien Irizarri eta **Antxon Jaime**ri eta biak ere txundituta geratu ziren Aitorren makinaren potentziarekin. Era berean, Europako Txapelketako probetan parte hartu eta Espainiako Txapelketa hirugarren aldiz irabazteko itxaropena azaldu zien Aitorrek. Ea hurrengo denboraldian *dobletea* lortzen duen...

# Zertan *dihardute* ba?



**Mikel Herzog** 36 urteko kantari bergararrak bere hirugarren diskoa kaleratu berri du, *"La magia del amor"* izenburupean. Diskoa martitzenean aurkeztu zen Madrilen eta Herzogen aurreko lanetan bezala baladak dira nagusi. Bere hitzetan, *"jende arruntari gertatzen zaizkion gauzak kontatzen ditut nire abestietan eta oso modu zuzenean lantzen ditut gaiak, 'maite zaitut' eta horrelako esaldiekin".* Herzog Nekez, Ebano, Cadillac edo La decada prodigiosa taldetan izan da eta hau bere bakarkako hirugarren lana da.



## Argazki rallya

**Roberto Madariaga** zaldibartarra izan da aurtengo argazki rallyko irabazlea. Bigarren eta hirugarren postuetan **Ignacio Del Rio** eta **Santos Vega** ermuarrak sailkatu dira; gazte saria **Dani Torres** bergararrak (goiko argazkia) eskuratu du eta herriko onena, berriz, **Agustin Gurrutxaga** izan da. Guztira, Euskal Herri osoko 42 argazkilarik hartu zuten parte, bakoitzak 6 diapositiba aurkeztu zituelarik. Lan onenen proiekzioa izango da bihar, larunbata, 19:30etan Pol-Pol Argazki Taldeak Zabalotegin duen lokalean.

Airtel
HAIZETEL
Telefonia mobila
Simon Arrieta plaza, 6. Tfnoa eta faxa: 76 40 68

ZUBIETA
elektragintza
MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK
Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48

ARGI PLASTIC
PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
Leihoak, ateak, manparak...
Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik
Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

# Oihana Zangitu

**20 urte ditu eta Osintxuko Muniola gasolindegian egiten du lan, orain dela zortzi hilabete zabaldu zutenetik.**



**- Zenbat ordu egiten duzu lan?**
- Bi erreleboka egiten dugu lan. Zortzi ordu t'erdi.

**- Lan egiteko ordu egokiena?**
- Goizez, 5:30etatik ordubietara, arratsaldeak libre izateko.

**- Ustekaberik?**
- Bai. Behin lapurretan egin zidaten. Mutil bat dendara sartu zen pistola eskuan zuela, eta diru guztia eraman zuen.

**- Ligatzen al duzu?**
- Zertxobait.

**- Hitz gozorik esaten dizute?**
- Lehengo egunean goizeko 8:30etan mutil batek begi politak nituela esan zidan.

**- Hitz zatarrik?**
- Ez.

**- Inguratu zaizun pertsonarik arraroena?**
- Denetatik ikusten da.

**- Kotxe gustokoena?**
- Orain hurrengoan ikusi nuen Mazda urdin bat.

**- Pertsonaia famaturen bat ezagutu duzu gasolindegian?**
- Joxe Felipe Auzmendi. Sarritan etortzen da.

*"Joxe Felipe Auzmendi sarritan etortzen da gasolindegira; Kostaldean, Zarautzen edo Getarian bizitzea gustatuko litzaidake eta Richard Gere-ri aterako nioke argazkia. Berrigaran gehien gustatzen zaidan atala mingainari tiraka da"*

**- Atzerritarrik inguratzen da?**
Bai. Kamioilari ugari. Frantsesak ere asko.

**- Norbaitek alde egin dizu ordaindu gabe?**
Niri ez zait gertatu.

**- Gasolindegian lan egin ezean, non?**
- Bulego batean.

**- Ze hizkuntza ikasiko zenuke?**
- Frantsesa. Baina erreleboak direla eta ezin dut.

**- Superstiziorik?**
- Ez. Baina kontutan izaten ditut.

**- Bete gabeko ametsa?**
- Mundu osoan zehar bidaiatzea.

**- Bizitzako egunik zoriontsuena?**
- Ez dakit. Asko izan ditut.

**- Atzera jaioko bazina...?**
- Moda disenatzailea izatea gustatuko litzaidake.

**- Zure akats bat?**
- Oso jeloskorra naiz.

**- Kualitate bat?**
- Pazientzia handia daukat.

**- Bergarako tokirik politena?**
- Kultur Etxea.

**- Desahogatzeko?**
- Lagunengana joan aholku bila.

**- Non biziko zinateke?**
- Kostaldean. Getarian, Zarautzen...

**- Nori aterako zenioke argazkia?**
- Richard Gere-ri gaztea zenean.

**- Berrigaran gehien gustatzen zaizun atala?**
- Kaleko galderak eta mingainari tiraka.

J.M. IZAGIRRE
Igeltseritza
Era guztietako igeltseritza lanak
Loidi Baserria ANGIOZAR
☎ 76 56 86

POL-POL
Taberna
☎ 76 07 78


TABERNA ZAHARRA
Jatetxea
bazkari eta afariak
Tfnoa: 76 21 21
ANGIOZAR

## ETXEBIZITZA

**Garajea** salgai Bolun. ☎ 76 25 21.

**Pisua** salgai Arrizurin. Hiru logela, garajerako aukera. ☎ 76 55 28/55 31 56.

**Pisua** alokairuan Antzuolan. ☎ 76 21 06.

**Garajea** (2 plaza) salgai Aranerrekan. ☎ 76 06 96.

**Kontsulta**rako lokala alokairuan. ☎ 76 07 84.

**Garajea** salgai Zurraderon. ☎ 76 02 89 (gauez).

**Garajea** salgai Bolun. ☎ 76 54 98.

**Pisua** salgai Martokuan. ☎ 76 59 96.

**Pisua** alokatuko genuke Bergaran. Urjentea. ☎ 78 26 52 (Arantzazu).

**Garajea** saldu edo alokairuan jarriko nuke Burdiñaten. ☎ 76 40 03.

**Kontsultarako** gelak alokairuan jartzen ditut Koldo Eleizalden, Bolun. ☎ 76 58 91.

**Pisua** salgai Mugertzan. Amueblatua. ☎ 76 53 79.

**Pisua** alokairuan hartuko nuke. ☎ 76 50 58.

**Pisua** salgai edo alokairuan Barrenkalen. ☎ 78 70 30.

**Garajea** (2 plaza) salgai Ibargarain. ☎ 76 28 33.

## DENETARIK

**Peugeot 505** kotxea (SS-S) salgai. ☎ 76 30 01.

**Taberna** alokairuan herri erdian. ☎ 907 45 57 22.

**Neumatiko** eta llantak salgai, 185/60 R 14 (Golf III). 25.000. ☎ 76 31 16.

**Fiat Tempra** 1.400 SX kotxea (SS-AL) salgai. ☎ 77 06 48 (iñaki).

**Renault 12** kotxea (SS-M) egoera onean salgai. 60.000 pta. ☎ 76 37 84.

**Opel Astra** kotxea (SS-AN) salgai. Egoera onean. ☎ 76 48 47.

**Gasteizera** joan-etorria (8-17.00) egiteko kotxea behar dut. ☎ 76 15 76.

**Ford Scorpio** kotxea (SS-W) salgai. ☎ 76 28 07.

**Montesa** Cota 348 Trial motorra salgai. ☎ 76 61 05.

**Negutegia** salgai. 2.000 m2. ☎ 17 51 05.

**2. eskuko** motorra erosiko nuke. ☎ 76 14 70 (Asier).

**Irrati kontroleko** abioia salgai. ☎ 76 51 94.

**Kotxe** teledirijitua salgai. ☎ 76 04 63.

**'Los picapiedra'** bideoa salgai. ☎ 76 38 71.

## LANA

**Neska** euskalduna behar da etxeko lanak/haurrak zaintzeko. ☎ 76 57 93.

**OHO** klaseak ematen ditut. ☎ 76 10 17 (Rosa).

**Ingeles** klaseak. ☎ 76 40 89 (Gemma).

**Etxeko** lanak egingo nituzke. ☎ 76 52 80 (Dorleta).

**Neska** batek etxeko lanak egin edo haurrak zainduko lituzke. ☎ 76 64 60.

**OHO** eta ingeles klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

**Mate** eta fisika klaseak ematen dira. ☎ 76 03 72.

**OHO** eta BBBko klaseak ematen ditut. ☎ 76 33 26.

**Etxeko** lanak egiten ditut (orduka). ☎ 76 48 39.

**Haurrak** edo helduak zaintzen ditut. ☎ 76 45 93.

**Ingeles Filolojian** lizentziatua, klaseak emango nituzke. ☎ 76 41 31.

**Neska** frantses batek frantseseko klaseak ematen ditu. ☎ 76 27 16.

**Majisteritzan** diplomatutako neska batek haurrak zaindu edo klaseak emango lituzke. ☎ 76 48 53.

**Unibertsitate** mailako klaseak. Estatistika, BBB eta UBI. ☎ 76 35 37.

**Lizentziatuak** BBB eta UBI klaseak ematen ditu Bolun. ☎ 76 70 40.

**Neska** bat eskeintzen da haurrak zaindu edo etxeko lanak egiteko. ☎ 76 57 01.


EDEL
TAPIZDENDA
*Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu*
**Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoiak, etab.**
Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.
**Bidekurutzeta, 14 BERGARA**

Felipe SUDUPE
Hagin klinika
*Medikuntza eta zirugian lizentziatua.*
*Estomatologian espezialdua.*
558. kolegiatua.
COEG
GIPUZKOAKO ODONTO-ESTOMATOLOGOEN ELKARTEA
*Kontsultarako ordua aurretik eskatu.*
**Matxiategi 18 behea, ezkerra. ☎ 76 07 66**

ARREGUI, E.M.
AROZTEGIA
- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
- ATEAK, etab.
- TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

**Urteaga, 20 ☎ 76 11 73**
**Erakusketa: Bidekurutzeta, 38**

# BONOFOTOA





## Begoña Beitia

**Begoña Beitia**k irabazi du oraingoan BONOFOTOko saria, aurrekoan egindako galdera berak asmatu duelako, eta ondorengo zozketan bere txartela atera delako. Argazkietan agertzen ziren atari eta balkoiak Bergarako zein kaletan dauden galdetzen genizuen eta erantzun zuzena **Artekalean eta Zubiaurren** zen. Beraz, aste honetako 10.000 pezetak **Begoña Beitia**ri eman dizkiogu. Zorionak!!

***Zer egiten zuten garai batean Ruiz de Aldaren semeen lantegia zen honetan?***

______________________________________________

**Izena:** ____________ **Abizena:** ____________ **Tfnoa:** ____________

**Saria**
**10.000 pzta.**

**Moztu paper hau eta ekarri astebete baino lehen**

**BERRIGARA**
**Errotalde Jauregia Bergara**

# Labegaraietako FUTBITO Txapelketa

| 1 TALDEAK | P | J | G.A. | G.K. |
|---|---|---|---|---|
| 1. A Ze Flaxa Etxagi | 18 | 6 | 28 | 6 |
| 2. Errotagain | 15 | 6 | 21 | 10 |
| 3. Jauja OH Zerezos | 10 | 5 | 21 | 17 |
| 4. Bar Canalejas | 10 | 5 | 17 | 14 |
| 5. Bildurbarek Opel/Lam | 10 | 6 | 23 | 22 |
| 6. Ogizun | 9 | 5 | 16 | 18 |
| 7. Mongatxurra | 6 | 4 | 19 | 13 |
| 8. Arloteak Oilagorra | 6 | 5 | 21 | 14 |
| 9. Ufala | 5 | 6 | 18 | 25 |
| 10. Ortzi | 4 | 5 | 7 | 14 |
| 11. Azpeitxi Jatetxea | 3 | 5 | 14 | 19 |
| 12. Madura Industrias Gol | 3 | 5 | 6 | 12 |
| 13. Pagomendi | 0 | 6 | 6 | 30 |

| 2 TALDEAK | P | J | G.A. | G.K. |
|---|---|---|---|---|
| 1. Artusamak Bergatrans | 15 | 6 | 27 | 13 |
| 2. Etxagi | 15 | 5 | 21 | 14 |
| 3. Uve Bikoitza Jam | 10 | 5 | 12 | 15 |
| 4. Kayak Os Jardineiros | 9 | 5 | 20 | 11 |
| 5. Ezinleike | 7 | 5 | 12 | 12 |
| 6. La Juve | 7 | 4 | 7 | 5 |
| 7. Soropotroak | 6 | 4 | 14 | 12 |
| 8. Agirrebeña Jatetxea | 6 | 5 | 14 | 15 |
| 9. Indargorri | 4 | 3 | 3 | 3 |
| 10. Agiñaspi | 4 | 5 | 12 | 19 |
| 11. Haltzari | 4 | 5 | 12 | 16 |
| 12. Eri | 3 | 3 | 11 | 16 |
| 13. Autoberezi | 0 | 5 | 9 | 24 |

| 3 TALDEAK | P | J | G.A. | G.K. |
|---|---|---|---|---|
| 1. PJS | 14 | 6 | 21 | 12 |
| 2. Jakina Patxaran Team | 13 | 6 | 21 | 21 |
| 3. Guadalest | 12 | 6 | 25 | 15 |
| 4. Moskis | 12 | 5 | 22 | 10 |
| 5. FAC | 10 | 6 | 18 | 15 |
| 6. Txipiron | 10 | 5 | 15 | 11 |
| 7. Nahikari Hooligans | 9 | 6 | 20 | 21 |
| 8. Nekrofilikos | 10 | 5 | 16 | 9 |
| 9. EH Biterrak | 7 | 5 | 9 | 14 |
| 10. Igandekoak | 6 | 5 | 15 | 22 |
| 11. MRW | 1 | 5 | 10 | 19 |
| 12. Ari Ari | 0 | 5 | 6 | 22 |
| 13. Construcciones Bergara | 0 | 5 | 10 | 23 |

| 4 TALDEAK | P | J | G.A. | G.K. |
|---|---|---|---|---|
| 1. Manitou | 18 | 6 | 42 | 8 |
| 2. Osintxu | 16 | 6 | 25 | 11 |
| 3. Arbe Kirolak | 15 | 6 | 28 | 20 |
| 4. Etengabe | 12 | 6 | 27 | 12 |
| 5. Panoramix | 9 | 6 | 22 | 29 |
| 6. Komando Piperrak | 9 | 6 | 17 | 19 |
| 7. SLO | 7 | 6 | 16 | 26 |
| 8. Matxakategi | 7 | 6 | 12 | 12 |
| 9. Amilotx | 7 | 6 | 13 | 16 |
| 10. Pittixak | 6 | 6 | 19 | 20 |
| 11. Polideportivo Taberna | 4 | 6 | 11 | 20 |
| 12. Xurrupak | 3 | 5 | 8 | 20 |
| 13. Pata Negra | 3 | 5 | 9 | 33 |
| 14. Aldoka Maldoka | 2 | 6 | 14 | 29 |

## Jokoz kanpo



**Abel Maestre**
***Ogizun***

**Zer moduz zoazte txapelketan?**
Oso ondo. Bi partidu irabazi ditugu, bi berdindu..., ondo doa.
**Zure taldearen gauzarik onena eta txarrena?**
Onena, ondo konpontzen garela eta txarrena izaera fuerteegia dugula.
**Kanporatu zaituzte inoiz?**
Bai, protestatzeagatik.
**Partiduak goizez ala arratsaldez?**
Berdin zait.
**Txapelketako talderik onena?**
A Ze Flaxa.
**Jokalaririk onena?**
Asier Elorza oso ona da.
**Sartu duzuen goleadarik handiena?**
Ez dakit nori sartu genizkion, baina 12 gol da partidu batean sartu dugun kopururik handiena.
**Eta jasotakoa?**
16 sartu zizkigun Bar Canalejasek.
**Ze postutan amaitzea espero duzue?**
Erdialdean.
**Liga profesionaleko jokalaririk onena?**
Clarence Sheedorf.
**Munduko kirolaririk onena?**
Marlene Ottey
**Euskal Herrikoa?**
Miguel Indurain.
**Jateko plater bat?**
Rodaballoa.

## ■ EMAITZAK

| | |
|---|---|
| Ogizun-A Ze Flaxa Etxagi | 1-7 |
| Pagomendi-Errotagain | 2-3 |
| Jauja OH Zerezos-Ufala | 6-6 |
| Bildurbarek Opel/Lam-Ortzi | 1-0 |
| Bar Canalejas-Azpeitxi jatetxea | 3-2 |
| Autoberezi-Etxagi | 5-7 |
| Kayak Os Jrdineiros-Haltzari | 1-3 |
| Agirrebeña Jatetxea-Eri | 4-3 |
| Agiñaspi-Bergatrans | 3-7 |
| EH Biterrak-Txipiron | 0-5 |
| Patxaran Team-Ari Ari | 7-3 |
| Igandekoak-PJS | 3-5 |
| MRW-Moskis | 2-5 |
| Guadalest-Nekrofilikos | 7-3 |
| Nahikari Hooligans-FAC | 5-1 |
| Komando Piperrak-Amilotx | 3-5 |
| Pittixak-Polideportivo Taberna | 4-2 |
| Manitou-Pata Negra | 15-0 |
| SLO-Matxakategi | 3-3 |
| Panoramix-Arbe Kirolak | 4-8 |
| Osintxu-Xurrupak | 3-1 |
| Etengabe-Aldoka Maldoka | 9-1 |

## ■ PARTIDUAK

**Zapatuan barruan**

**09:00:** Etengabe-Panoramix • **Aldoka Maldoka**
**10:00:** Osintxu-Aldoka Maldoka • **Xurrupak**
**11:00:** Xurrupak-Pata Negra • **Osintxu**

**Zapatuan kanpoan**

**10:00:** Soropotroak-La Juve • **Agiñaspi**
**11:00:** Agiñaspi-Indargorri • **La Juve**

**Domekan barruan**

**09:00:** Mongatxurra-Madura • **Haltzari**
**10:00:** Ja Luve-Haltzari • **Mongatxurra**
**16:00:** Autoberezi-Eri • **Soropotroak**
**17:00:** Soropotroak-Agirrebeña Jatetxea • **Indargorri**
**18:00:** Kayak Os Jardineiros-Indargorri • **Etxagi**
**19:00:** Uve Bikoitza-Etxagi • **Ortzi**
**20:00:** Jauja OH Zerezos-Ortzi • **Uve Bikoitza**

**Domekan kanpoan**

**09:00:** Txipiron-Construcciones Bergara • **Igandekoak**
**10:00:** Igandekoak-MRW • **Txipiron**

# Behobia-Donostia 96



102 bergararrek eta 27 antzuolarrek hartu zuten parte domekan Behobia-Donostia lasterketan, guztira 129k, iaz baino 15 gehiagok. Onena, argazkian agertzen den Manu Aranburu (1 09' 50") izan zen. 6 emakume aritu ziren eta denborarik onena Saioa Berraondok egin zuen (1 39' 20"). Gazteenak, Karlos Aldai, Iñaki Irigoien eta Mikel Bolibar (17 urte) izan ziren eta zaharrena, berriz, Francisco Alonso (70 urte).

















## BERGARAR ETA ANTZUOLARREN SAILKAPEN EZ-OFIZIALAK. ITURRIA: FORTUNA ELKARTEA

| | | |
|---|---|---|
| 65 | Manu Aranburu | 1 09' 50" |
| 69 | Basilio Aranburu | 1 09' 55" |
| 73 | Roberto Zurro | 1 10' 11" |
| 158 | Aitor Peña | 1 13' 24" |
| 186 | Anselmo Martinez | 1 14' 04" |
| 190 | Javier Moreno | 1 14' 07" |
| 211 | Aitor Eraña | 1 14' 30" |
| 248 | Jose Mari Igarza | 1 15' 12" |
| 249 | Mikel Larrañaga | 1 15' 13" |
| 407 | Anton Barrutia | 1 17' 42" |
| 491 | Aitor Larrea | 1 18' 54" |
| 562 | Aitor Garcia | 1 19' 23" |
| 628 | Anselmo Gomez | 1 19' 56" |
| 647 | Jabi Ibarra | 1 20' 05" |
| 654 | Andres Arbulu | 1 20' 08" |
| 694 | Imanol Garcia | 1 20' 26" |
| 726 | Iñaki Alberdi | 1 20' 50" |
| 842 | Xabier Barkero | 1 21' 49" |
| 950 | Asier Aranguren | 1 22' 31" |
| 970 | Felix Terrazas | 1 22' 39" |
| 1172 | Angel Agiriano | 1 24' 21" |
| 1229 | Xabier Lijó | 1 24' 42" |
| 1320 | Karlos Lizarralde | 1 25' 21" |
| 1359 | Agustin Meis | 1 25' 39" |
| 1465 | Aitor Laskurain | 1 26' 17" |
| 1677 | Jose Arribas | 1 27' 30" |
| 1766 | Aitor Gabilondo | 1 27' 55" |
| 1788 | Luis Mari Alberdi | 1 28' 02" |
| 1980 | Joseba Garitano | 1 29' 04" |
| 2166 | Jose Luis Garcia | 1 30' 00" |
| 2188 | Oskar Ortiz | 1 30' 08" |
| 2231 | Estebe Olartua | 1 30' 19" |
| 2295 | Kote Mentxaka | 1 30' 37" |
| 2322 | Xabier Uribesalgo | 1 30' 45" |
| 2346 | Iñaki Andueza | 1 30' 54" |
| 2590 | Imanol Elkoroberezibar | 1 32' 05" |
| 2604 | Iñaki Olano | 1 32' 12" |
| 2650 | Aitor Aldazabal | 1 32' 28" |
| 2704 | Karlos Aldai | 1 32' 44" |
| 2705 | Iñaki Irigoien | 1 32' 44" |
| 2715 | Juan Martin Elexpuru | 1 32' 48" |
| 2837 | Jose Tomas Castelo | 1 33' 24" |
| 2864 | Jose Antonio Akizu | 1 33' 31" |
| 2884 | Mikel Uribesalgo | 1 33' 40" |
| 2976 | Joaquin Gonzalez | 1 34' 08" |
| 3122 | Gorka Iglesias | 1 34' 40" |
| 3177 | Celestino Santos | 1 34' 52" |
| 3185 | Mikel Etxaniz | 1 34' 53" |
| 3213 | Miguel Angel Lazpiur | 1 34' 59" |
| 3371 | Ion Balentziaga | 1 35' 41" |
| 3381 | Aitor Curado | 1 35' 43" |
| 3390 | Ion Suinaga | 1 35' 45" |
| 3393 | Aiert Lizarralde | 1 35' 46" |
| 3529 | Joxe Balentziaga | 1 36' 19" |
| 3681 | Xabier Legorburu | 1 36' 55" |
| 3889 | Iban Saidi | 1 37' 50" |
| 3925 | Arkaitz Zabalo | 1 37' 56" |
| 3926 | Eñaut Urzelai | 1 37' 56" |
| 3957 | Mikel Bolibar | 1 38' 01" |
| 4046 | Ion Larrañaga | 1 38' 29" |
| 4067 | Iker Ibarguren | 1 38' 34" |
| 4176 | Ion Aranburu | 1 38' 58" |
| 4185 | Manuel Reifs | 1 39' 00" |
| 4224 | Iban Loyola | 1 39' 10" |
| 4228 | Jose Maria Aristimuño | 1 39' 11" |
| 4254 | Saioa Berraondo | 1 39' 20" |
| 4498 | Maria Eukene Gracia | 1 40' 21" |
| 4507 | Jose Fermin Hernandez | 1 40' 23" |
| 4558 | Mikel Agirrezabal | 1 40' 32" |
| 4566 | Luis Mari Beistegi | 1 40' 33" |
| 4787 | Luis Maria Eguren | 1 41' 25" |
| 4947 | Markel Goenaga | 1 42' 04" |
| 5020 | Iosu Otaegi | 1 42' 26" |
| 5072 | Xabier Larrañaga | 1 42' 36" |
| 5125 | Jose Angel Amosarrain | 1 42' 53" |
| 5299 | Esteban Mendikute | 1 43' 36" |
| 5357 | Patxi Olabarria | 1 43' 52" |
| 5406 | Ion Ugarte | 1 44' 05" |
| 5407 | Iker Etxeberria | 1 44' 05" |
| 5411 | Ion Berasategi | 1 44' 06" |
| 5430 | Patxi Arriola | 1 44' 10" |
| 5512 | Juan Luis Arriola | 1 44' 30" |
| 5574 | Ion Agirrezabalaga | 1 44' 53" |
| 5676 | Amaia Agirre | 1 45' 16" |
| 5872 | Mikel Kerexeta | 1 46' 00" |
| 6159 | Ignacio Ugarte | 1 47' 30" |
| 6218 | Jose Ramon Balzategi | 1 47' 44" |
| 6267 | Iñaki Arietaleaniz | 1 48' 01" |
| 6446 | Xabier Alberdi | 1 48' 51" |
| 6449 | Mikel Alberdi | 1 48' 51" |
| 6677 | Jose Ramon Aiastui | 1 49' 57" |
| 6692 | Alfonso Ena | 1 50' 03" |
| 6856 | Ainhoa Larrañaga | 1 50' 44" |
| 6858 | Jose Mari Etxaniz | 1 50' 44" |
| 6866 | Juan Jose Aranburu | 1 50' 46" |
| 6910 | Luis Mari Sotil | 1 51' 06" |
| 6911 | Julen Narbaiza | 1 51' 06" |
| 6915 | Iñaki Pedrejon | 1 51' 07" |
| 6941 | Mikel Elkoroberezibar | 1 51' 15" |
| 6953 | Carlos Telleria | 1 51' 18" |
| 7001 | Pedro Arroyo | 1 51' 36" |
| 7003 | Iñaki Ibabe | 1 51' 37" |
| 7051 | Markos Labaien | 1 51' 55" |
| 7165 | Julian Zangitu | 1 52' 29" |
| 7476 | Jesus Kalboetxeaga | 1 54' 27" |
| 7488 | Juan Manuel Lasa | 1 54' 29" |
| 7518 | Iñaki Arizmendiarrieta | 1 54' 40" |
| 7552 | Fernando Otaño | 1 55' 00" |
| 7564 | Joseba Moñux | 1 55' 02" |
| 7567 | Pili Garcia | 1 55' 03" |
| 7576 | Jesus Arazkonaga | 1 55' 07" |
| 7916 | Jose Ramon Etxeberria | 1 57' 37" |
| 7949 | Francisco Alonso | 1 57' 50" |
| 8000 | Xabier Larrea | 1 58' 19" |
| 8005 | Karlos Zangitu | 1 58' 20" |
| 8052 | Ion Ander Garitano | 1 58' 48" |
| 8057 | Asier Arrieta | 1 58' 50" |
| 8061 | Xabier Garitano | 1 58' 51" |
| 8064 | Joseba Larrañaga | 1 58' 52" |
| 8098 | Aitor Elkoro | 1 59' 00" |
| 8210 | Igor Oregi | 2 00' 08" |
| 8211 | Alex Labaien | 2 00' 08" |
| 8329 | Jabier Orbea | 2 01' 41" |
| 8369 | Francisco Moratxo | 2 02' 09" |
| 8476 | Luis Mari Azkargorta | 2 03' 15" |
| 8548 | Hilario Azkargorta | 2 04' 26" |
| 8575 | Pili Barandiaran | 2 04' 49" |
| 8585 | Igor Azkarate | 2 04' 59" |
| 8638 | Marisabel Hurtado | 2 06' 14" |
| 8662 | Mikel Eguren | 2 06' 55" |
| 8781 | Joseba Leturia | 2 09' 05" |

## KARTELDEGIA

**FUTBOLA**

♦ **Bergara-Mutriku**
Bigarren mailako erregionala.
Domeka. 15:30. Agorrosin.
♦ **Bergara-Eibartarrak**
Bigarren mailako jubenilak.
Zapatua. 17:15. Ipintza.
♦ **Bergara-Urola**
Ohorezko mailako kadeteak.
Zapatua. 15:30. Ipintza.
♦ **Bergara-Zestoa**
Bigarren mailako kadeteak.
Zapatua. 11:15. Ipintza.

**SASKIBALOIA**

♦ **Bergara-Santo Tomas Lizeoa**
Senior neskak. Zapatua. 16:15.
♦ **Bergara-Oztadar**
Junior mutilak. Zapatua. 12:15.
♦ **Bergara-Etxadi**
Kadete neskak. Zapatua. 12:15.
Hirurak Kiroldegian.

**ESKUBALOIA**

♦ **Bergara-Arrate Txiki**
Kadete mutilak. Zapatua. 17:30.
♦ **Bergara-Escolapios**
Senior mutilak. Zapatua. 19:00.
♦ **Bergara-Tolosa**
Jubenil mutilak. Domeka. 11:15.
♦ **Bergara-Pulpo**
Jubenil neskak. Domeka. 12:30.
Hirurak Kiroldegian.

**PILOTA: BAQUE TXAPELKETA**

KADETEAK
♦ **Zubizarreta-Sorarrain**
♦ **Iparragirre-Goikoetxea**
JUBENILAK
♦ **Erratzu-Egimendia**
♦ **Iraeta-Luluaga**
Martitzena. 19:00. Pilotalekua.

KADETEAK
♦ **Alzola-Zubieta**
♦ **Muguruza-Alzaguren**
JUBENILAK
♦ **Bartolome-Elola**
♦ **Eritz-Aldazabal**
Eguena. 19:00. Pilotalekua.

# Edu Iñarra

## Eskubaloi taldeko atezaina

**Eskubaloi taldeko atezaina da eta 9 urte inguru daramatza lehen taldean jokatzen. Aurtengo denboraldian aldaketa asko izan dira taldean eta oraindik ez dute partidurik irabazi. Halere, esperantza ez dute galdu eta zapatu honetan lehen garaipena lortzeko ahaleginak egingo dituzte.**

**- Zer gertatzen da 7 partidu jarraian galtzeko?**

- Jokalari berriak sartu dira eta, bestalde, kontrarioak gu baino hobeak dira. Beharbada, gauden maila altuegia da guretzat. Partiduetan kontzentrazio eta esperientzia faltagatik huts asko egiten ditugu.

**- Zertan igartzen da esperientzia falta hori?**

- Gehiegi kanporatzen gaituztela uste dut. Horiek gure erruak izaten dira. Bestalde, azkenengo partiduan 6 eta 1 hasi ginen galtzen eta azkenean gol bakar bategatik galdu genuen.

**- Entrenatzaile aldaketak zerikusirik izan al du?**

- Bai, baina batez ere Lijok arratsaldez lan egiten duelako eta askotan gure kontura entrenatu behar izaten dugulako. Nahikoa gogo jartzen dugula uste dut, baina entrenatzailea izatea derrigorrezkoa da. Jendea gogoarekin dabil entrenatzen, baina entrenatzailearekin denbora gehiago izatea komenigarria izango litzateke.

**- Zer falta zaizue partiduak irabazteko?**

- Talde ona, baina gazteegia dugu. Gainera, nahiko txikiak gara eta lan fisiko gehiago egin beharko genuke. Entrenamenduetan tentsio gehiago jarri beharko genukeela uste dut.

**- Zapatuko partiduan lehenengo garaipena?**

- Bilboko Escolapiosen aurka jokatuko dugu. Iaz etxean irabazi egin genuen eta han gol bakar bategatik galdu. Nekeza izango da, baina irabazteko aukerak baditugu.

**- Horrenbeste igartzen dira iazko jokalarien bajak?**

- Bai, gelditu garenak ez gara partiduak erabaki dezaketenetakoak. Lehen, momentu batean erresponsabilitatea hartzen zuten jokalariak zeuden taldean, baina orain hori falta zaigu. Batez ere jaurtitzaileak falta zaizkigu, zeren defentsan nahiko ondo gabiltza.

**- Mailari eusteko esperantzarik?**

- Partidu asko falta dira eta aurrerantzean huts tontorik egiten ez badugu eta gehiago entrenatu eta zorte pixka bat izaten badugu eutsiko diogula uste dut.



"Ondo entrenatuz eta zorte pixka batez mailari eutsiko diogu".

**"Entrenamenduetan tentsio gehiago jarri beharko genuke"**



*Argazkia: Jauregi "Altzeta"*

# *Pilota jaialdia Bergaran orain 50 urte*

Gipuzkoako Pilota Federazioak eta Cafe Baque enpresak antolatutako gazteei zuzendutako pilota txapelketaren azken fasea Bergaran jokatuko dela eta, orain dela 50 urte Bergaran izandako pilota jaialdi bateko argazkia ekarri dugu orrialde honetara. Santa Marinako jaien programaren barruan, 1946ko uztailaren 18an Argiñano-Ezpeleta eta Jauregi-Gallastegi II bikoteek neurtu zituzten indarrak lehendabiziko partiduan eta jarraian, Arriaran-Larrañaga eta Bolinaga II-Aulestia bikoteak izan ziren lehian.

Jauregi, Gallastegi, Larrañaga eta Arriaran Zubieta kalean jaiotakoak ziren. Garai haietan Zubietan izugarrizko pilota zaletasuna zegoen. Argiñano, bestalde, Realean jokatzera iritsi zen. Pakorro pilota kazetariaren kronikaren arabera, Argiñanok eta Ezpeletak makina bat lan egin behar izan zuten Jauregi eta Gallastegi menderatzeko.

Dirudienez, lau pilotariek ikuskizun bikaina eskeini zuten Bergarako Frontoian eta zaletuak oso gustora geratu omen ziren ikusitako partiduarekin. Argiñano eta Ezpeleta 22 eta 19ko emaitzarekin nagusitu ziren. Jaialdiaren antolaketa ere bikaina izan zen eta urrian, lehendabiziko aldiz, Or-Konpon elkarteak Bergarako distritoko afizionatu mailako txapelketa antolatu ahal izan zuen.

1946eko uztaileko argazkian, ezkerretik eskumara:Gallastegi II, Jauregi, Ezpeleta eta Argiñano. Azken hauek Espainiako txapeldunak izan ziren urte haietan.

Industria hornikuntzak
U UNIFE
Industriaren alde
MEMESA S.L.
Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE. ☎ 79 42 22 • Faxa: 76 47 89
Santa Kruz, 25 ARETXABALETA. ☎ 77 11 75 • Faxa: 77 13 08

San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21
Zumelaga
JATETXEA
ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!

# Automobil aseguruak

**Mapfre abantailak**




**Zure kotxeko aseguruaren abantailei buruzko zehaztapen guztiak emango dizkizugu.**

**Zatoz eta galdetu!!**

**%10eko deskontuak**

***poliza berri bat egiterakoan.***

**MAPFRE**
MUTUALIDAD

Simon Arrieta 3, Bergara
☎ 76 28 79 / 76 18 80



# ELKAR
## ELEKTRAGINTZA

**Zure zerbitzura!!**

**Mota guztietako instalazioak**



☎

**76 00 00**

Koldo Eleizalde, 8.

BERGARA

Sofa leku

centro hogar MUEBLES

a, eme... interiore









Estilo guztietako altzariak aurkituko dituzu gure dendetan.

Zatoz, eta zuk aukeratu!!



grupo

**Amuebladora Mondragonesa**

**a. eme. interiores,** Garibai, 9 • ARRASATE • Tfnoa: 79 15 03
**centro hogar muebles,** Zigarrola, 1 • ARRASATE • Tfnoa: 77 14 92
**sofa leku,** Zigarrola, 1 • ARRASATE • Tfnoa: 77 14 92